

**2021eko AZAROAREN 25ean UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIKO
OSOKO BILKURAREN AKTA** **12 zk.**

Zarauzko udaletxeko batzar-aretoan, 2021eko azaroaren 25ean, arratsaldeko zazpitan, Udaltzarrak bildu da, egun eta ordu horietarako aurretik deituta zegoen ohiko bilkura egiteko xedez.

Udaltzarako kide hauek bertaratu dira:

Batzarburua Xabier Txurruka Fernandez jn.

Zinegotziak Miren Letamendia Belloso and.
Jesus Arana Gomez jn.
Iratxe Zorrozuza Eguiazabal and.
Iban San Martin Hernandez jn.
Leire Arana Olabarrieta and.
Ixidor Larrañaga Ayerbe jn.
Iker Basurko De Miguel jn.
Irene Urbieto Alberdi and.
Koldo Uribarri Zenekorta jn.
Itziar Murua Uria and.
Ion Arozena Eizagirre jn.
Mikel Goenaga Gubia jn.
Ainara Landa Argote and.
Begoña Olaizola Elordi and.
Xabier Etxaburu Elu jn.
Jesus Goikoetxea Balentziaga jn.
Eider Illarramendi Azkue and.
Gloria Vazquez Herranz and.
Patxi Elola Azpeitia jn.
Oihane Delgado Pita and.

Idazkaria Ines Diaz de Villafranca Arzamendi and.

Kontu-hartzailea Karmele Lizaso Ubera and.

Bilkurari hasiera emanda, eguneko aztergaiak aztertu eta eztabaidatu ditu Udaltzarrak.

GAI-ZERRENDA

1.- 2021eko URRIAREN 28 eta AZAROAREN 11ko BILKUREN AKTAK ONARTZEA.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211125&punto=1>

Aho batez onartu dituzte, zuzenketarik gabe.

2.- ALKATETZAREN DEKRETUEN KONTROLA:

– 2021eko urriaren 25etik azaroaren 19ra.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211125&punto=2>

Segidan, Alkatetzak 2021eko urriaren 25etik azaroaren 19ra erabakitako dekretuen berri izan du Udalbatzak.

3.- TOKIKO GOBERNU BATZARRAREN ERABAKIEN KONTROLA:

– 2021eko urriaren 25etik azaroaren 15era.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211125&punto=3>

Era berean, Tokiko Gobernu Batzarrak 2021eko urriaren 25etik azaroaren 15era hartutako erabakien berri izan du Udalbatzak.

4.- ZARAUZKO UDALAK DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAREN ALDAKETA. HASIERAKO ONESPENA.

Espedientea: 2021I1330001

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211125&punto=4>

2008ko uztailaren 16an egindako osoko bilkuran, Udalbatzarrak ZARAUZKO UDALAK ETA BERE ERAKUNDE AUTONOMOEK DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEA onartu zuen, eta testu osoa 2008ko uztailaren 22ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (140 zk.) argitaratu zen.

2016ko martxoaren 31an eta 2018ko irailaren 27an egindako osoko bilkuretan, Udalbatzarrak Ordenantza horretan aldaketa batzuk onartu zituen, izenburua barne eta testu osoa 2016ko ekainaren 3ko eta 2018ko abenduaren 3ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (105 eta 232 zk.) argitaratu zen.

Gaur egun, beharrezkotzat jo da ordenantza hori gerora onartutako legezko xedapenetara egokitzea, eta une hori baliatu da, halaber, ordenantzaren berrikuspen orokorra egiteko.

Horiek horrela, eta Herritarren arloko informazio-batzordeak aldeko irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak, aho batez,

ERABAKI DU

Lehen.- Hasierako onespena ematea ZARAUZKO UDALAK DIRULAGUNTZAK EMATEKO ORDENANTZA OROKOR ARAUTZAILEAREN idazkera berriari.

Bigarrena.- Espedientea jendaurrean jartzea, 30 eguneko epean, interesdunek erreklamazio eta iradokizunak aurkeztu ahal izan ditzaten. Jendaurreko informazio-izapidea jakitera emango da udaletxeko iragarki-taulan zein web-orrian jarriko den eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko den iragarkiaren bidez.

Hirugarrena.- Erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu ezean, Ordenantzaren aldaketa behin betiko onartutzat hartuko da, berariazko erabakirik hartu beharrik izan gabe. Dena den, indarrean sartzeko, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean aldaketaren testu osoa argitaratu beharko da.

IDAZKERA BERRIA

AURREKO IDAZKERA	IDAZKERA BERRIA
<p>II. ORDENANTZA OROKORRA</p> <ol style="list-style-type: none"> Xedapen orokorrak Dirulaguntzen prozedura eta kudeaketa Dirulaguntzaren ordainketa Dirulaguntzaren xedearen justifikazioa Aurrekontuak kudeatzeko prozedura Dirulaguntzen itzulera Zigor erregimena Publizitatea Balorazio irizpideak: berdintasuna Interpretazioa Errekurtsoak <p>I. ZIOEN AZALPENA</p> <p>8. paragrafoa</p> <p>Ordenantza Orokor honen helburua, beraz, Zarauzko Udalaren eta bere erakunde autonomoen dirulaguntza-jarduera guztia kokatzea da; eta, bide batez, udal arlo bakoitzak kudeatutako dirulaguntzen oinarri espezifikoa ere ematen ditu, eranskin gisa.</p> <p>II. ORDENANTZA OROKORRA</p> <p>1. XEDAPEN OROKORRAK</p> <p>1. artikulua. Aplikazioaren helburua, definizioa eta esparrua</p>	<p>II. ORDENANTZA OROKORRA</p> <ol style="list-style-type: none"> Xedapen orokorrak Dirulaguntzen prozedura eta kudeaketa Dirulaguntzaren ordainketa Dirulaguntzaren xedearen justifikazioa Aurrekontuak kudeatzeko prozedura Dirulaguntzen itzulera Zigor erregimena Publizitatea Balorazio irizpideak: berdintasuna eta hizkuntza Interpretazioa Errekurtsoak <p>I. ZIOEN AZALPENA</p> <p>8. paragrafoa</p> <p>Ordenantza Orokor honen helburua, beraz, Zarauzko Udalaren dirulaguntza-jarduera guztia kokatzea da; eta, bide batez, udal arlo bakoitzak kudeatutako dirulaguntzen oinarri espezifikoa ere ematen ditu, eranskin gisa.</p> <p>II. ORDENANTZA OROKORRA</p> <p>1. XEDAPEN OROKORRAK</p> <p>1. artikulua. Aplikazioaren helburua, definizioa eta esparrua</p>

<p>Helburua:</p> <p>Ordenantza honen helburua da Zarauzko Udalak eta bere erakunde autonomoek ematen dituzten dirulaguntzen irizpideak eta emakida-prozedurak finkatzea, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta legearen garapeneko erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezartzen dutenaren babesean.</p> <p>Definizioa:</p> <p>Dirulaguntza, Ordenantza honen ondorioetarako, Udalak edo bere erakunde autonomoek pertsona publikoen edo pribatuen alde egindako diruzko edozein ekarpen da, eta baldintza hauek bete behar ditu:</p> <p>2. DIRULAGUNTZEN PROZEDURA ETAKUDEAKETA 6. artikulua. Diruz laguntzeko gastuak</p> <p>Ordenantza honetan aurreikusitako ondorioetarako, gastu hauek dira diruz laguntzeko modukoak: diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, eta dirulaguntzen oinarri espezifikoa jarritako epean egiten direnak.</p> <p>Dirulaguntzaren araudian zehaztutako justifikazio-epea bukatu aurretik egindako ordainketa hartuko da gastutzat.</p> <p>...</p> <p>Diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoak obra egikaritzeko kostuaren kasuan 30.000 euroko zenbatekoa gainditzen dituenean, edo 12.000 eurokoa ekipamendu-ondasunez hornitzeko edo aholkularitzako edo laguntza tekniko enpresen zerbitzuak emateko kasuan, onuradunak gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik; ez, ordea, diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago zerbitzu hori hornitzen edo ematen duen nahikoa entitate, edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.</p> <p>8. artikulua. Finantziazioaren muga, bateragarritasuna eta aldiberekotasuna beste dirulaguntza batzuekin</p> <p>Udalak eta bere erakunde autonomoek araudi hau betez emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.</p> <p>.....</p>	<p>Helburua:</p> <p>Ordenantza honen helburua da Zarauzko Udalak ematen dituen dirulaguntzen irizpideak eta emakida-prozedurak finkatzea, Dirulaguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak eta legearen garapeneko erregelamendua onartzen duen uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuak ezartzen dutenaren babesean.</p> <p>Definizioa:</p> <p>Dirulaguntza, Ordenantza honen ondorioetarako, Udalak pertsona publikoen edo pribatuen alde egindako diruzko edozein ekarpen da, eta baldintza hauek bete behar ditu:</p> <p>2. DIRULAGUNTZEN PROZEDURA ETA KUDEAKETA 6. artikulua. Diruz laguntzeko gastuak</p> <p>Ordenantza honetan aurreikusitako ondorioetarako, gastu hauek dira diruz laguntzeko modukoak: diruz lagundutako jardueraren izaerari inolako zalantzarik gabe erantzuten diotenak, behar-beharrezkoak direnak, eta dirulaguntzen oinarri espezifikoa jarritako epean egiten direnak. Epe zehatz bat jartzen ez denean, dirulaguntza eman den urte naturala bukatu baino lehen egin beharko dira gastuak.</p> <p>Dirulaguntzaren araudian zehaztutako justifikazio-epea bukatu aurretik egindako ordainketa hartuko da gastutzat.</p> <p>Diruz lagun daitezkeen gastuen erosketa-prezioa inoiz ez da izango merkatuko balioa baino handiagoa.</p> <p>...</p> <p>Diruz lagun daitezkeen gastuaren zenbatekoak Sektore Publikoko Kontratuen legerian kontratu txikietarako jarritako zenbatekoak gainditzen dituenean, onuradunak gutxienez hiru hornitzaile desberdinen eskaintzak eskatu beharko ditu, zerbitzua emateko edo ondasuna entregatzeko konpromisoa hartu aurretik; ez, ordea, diruz lagun daitezkeen gastuen ezaugarri bereziengatik merkatuan ez badago zerbitzu hori hornitzen edo ematen duen nahikoa entitate, edo gastua dirulaguntza eskatu aurretik egin bada.</p> <p>8. artikulua. Finantziazioaren muga, bateragarritasuna eta aldiberekotasuna beste dirulaguntza batzuekin</p> <p>Udalak araudi hau betez emandako dirulaguntzak bateragarriak izango dira edozein administrazio edo erakunde publiko zein pribatuk xede berarekin emandako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin.</p> <p>.....</p>
---	---

<p>Udalak eta bere erakunde autonomoek emandako dirulaguntzen zenbatekoak (bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo du inoiz gainditu, entitate onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua.</p> <p>9. artikulua. Norgehiagoka bidezko emakida</p> <p>3. Emakida egiteko organo eskudunak, arrazoituz gero, aukera izango du hautaketa-prozesua hutsik lagatzeko, edo aurreikusitako zenbateko guztia edo aurrekontuko partidari edo bere lotura-poltsari dagokion kreditu erabilgarria ez agortzeko.</p> <p>11. artikulua. Onuradunak</p> <p>12. artikulua. Organo eskudunak</p> <p>Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio dirulaguntza-lerro bakoitzerako berariazko deialdia egitea eta ebaztea, baita zuzeneko dirulaguntzak ematea ere, une bakoitzean Zarauzko Udalaren administrazio-antolaketa indarrean dauden eskumenen eta eskuordetzen arabera. Erakunde Autonomoen kasuan, erakundeko Lehendakaria edo, Kontseilu Nagusia edo Batzorde Zuzentzailea izango da organo eskuduna, nor bere eskumenen arabera.</p> <p>Alkatetzako eskumenak eskuordetzeko Alkatetzaren uztailaren 20ko 977 Dekretuan xedatutakoari jarraiki, Tokiko Gobernu Batzarra da norgehiagoka bidezko dirulaguntzen emakidarako deialdia onartzeko edo ezeztatzeko eskuduna.</p> <p><i>Azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan eta Ordenantza honek 10. artikuluan aurreikusten dituzten zuzeneko dirulaguntza mota guztiak egindako eskuordetzearen esparruz kanpo geratzen dira, eta hortaz, Alkatetzak gordeko du horien emakida, hala nola dagozkien formalizazio hitzarmenak, eta gizarte-larrialdietarako planen arabera baimentzen diren gizarte-erloto laguntzak, banan-banako laguntzak, etab. sinatzea.</i></p> <p>Erakunde autonomoen kasuan, norgehiagoka bidezko diru-laguntzen emakidarako deialdia eta bere ebazpena Kontseilu Nagusiari edo Batzorde Zuzentzaileari dagokio, eta azaroaren 17ko 38/2003 Legeak 22.2 artikuluan aurreikusten dituen zuzeneko diru-laguntza guztiak, horietako lehendakarietara.</p> <p>14. artikulua. Eskaerak</p> <p>...</p> <p>- Zinpeko aitorpena adierazpena, beste departamentu, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, emanda daudenak jasotzen dituenak.</p>	<p>Udalak emandako dirulaguntzen zenbatekoak (bakarka edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin batera) ezingo du inoiz gainditu, entitate onuradunak diruz lagunduta garatu beharreko jardueraren kostua.</p> <p>9. artikulua. Norgehiagoka bidezko emakida</p> <p>3. Emakida egiteko organo eskudunak, arrazoituz gero, aukera izango du hautaketa-prozesua hutsik lagatzeko, edo aurreikusitako zenbateko guztia ez agortzeko.</p> <p>11. artikulua. Pertsona eta entitate onuradunak</p> <p>12. artikulua. Organo eskudunak</p> <p>Alkatetzari edo Tokiko Gobernu Batzarrari dagokio dirulaguntza-lerro bakoitzerako berariazko deialdia egitea eta ebaztea, baita zuzeneko dirulaguntzak ematea ere, une bakoitzean Zarauzko Udalaren administrazio-antolaketa indarrean dauden eskumenen eta eskuordetzen arabera.</p> <p>14. artikulua. Eskaerak</p> <p>...</p> <p>- Erantzukizunpeko adierazpena, beste departamentu, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulaguntza-eskaerak edo, hala badagokio, emanda daudenak jasotzen dituenak.</p>
---	---

<p>- Euskararen tratamendua, jardueraren hedapenean aurreikusitakoa, eranskineko fitxa normalizatuaren (E-03 eredua) arabera, Zarauzko Udalean Euskararen Erabilera Normalizatzeko Arauen 25. artikuluan aurreikusitakoari jarraiki.</p> <p>- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udal eta bere erakunde autonomoarenak egunean dituela, eta onuradun izateko Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako inolako debekurik ez daukatela adierazten duen aitorpena. (E-04 eredua).</p> <p>Betebehar horiek bete izanaren egiaztapena errazteko, pertsona edo erakunde eskatzaileak eskaeran organo emaileak zerga-betebeharren eta Gizarte Segurantzakoak betetzearen egiaztapena ziurtagiri telematikoen bidez lortzeko baimena erantsi ahal izango du, eta kasu horretan ez ditu horiei dagozkien egiaztapenak ekarri beharko.</p> <p>15. artikulua. Akatsak zuzentzea</p> <p>Eskaerak ez baditu betetzen deialdi-arauan jarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko gehienezko epe luzaezinean zuzen dezala, eta adieraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, betiere alde zurretik ebazpena emanda. aurrez azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 71. artikuluan aurreikusten dituen baldintzen arabera erabakia hartuta.</p> <p>18. artikulua. Ebazpena</p> <p>7. Era berean, egintzak ezeztatze eta akatsak zuzentzeko, 30/1992 Legeak 105. artikuluan xedatzen duena aplikatuko da.</p> <p>20. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak</p> <p>e) ...</p> <p>Zarauzko Udalaren zerga-betebeharrak egunean dituela egiaztatze, nolahi ere 30/1992 Legeak, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearenak, 35. artikuluan</p>	<p>- Euskararen tratamendua, jardueraren hedapenean aurreikusitakoa, dagokion inprimakia beteta.</p> <p>- Zerga-betebeharrak, Gizarte Segurantzakoak eta Zarauzko Udalekoak egunean dituela, eta onuradun izateko Dirulaguntzen Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako inolako debekurik ez daukatela adierazten duen erantzukizunpeko adierazpena.</p> <p>Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen zortzigarren xedapen gehigarria eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuz, ez da beharrezkoa izango interesdunak baimena ematea laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzeko; eta administrazioak, bere eskumenen barruan, datuen zehaztasuna frogatzeko eta bere esku dauden edo beste edozeinek egin dituen dokumentuak kontsultatzeko eta biltzeko behar diren egiaztapenak egin ahalko ditu.</p> <p>- Zinpeko aitorpena, adierazten duena, batetik, sexuaren, ideologiaren, jaioterriaren, nazionalitatearen edo sexu-joeraren ziozko diskriminaziorik ez dela egiten kideak aukeratzeko prozesuan ezta lan-jardunean ere, eta bestetik, administrazio-zehapenik edo zehapen penalik ezarrita eta indarrean ez dela sexuagatik diskriminazioa egin izanagatik, ez sexu-delituengatik.</p> <p>15. artikulua. Akatsak zuzentzea</p> <p>Eskaerak ez baditu betetzen deialdi-arauan jarritako betekizunak, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko gehienezko epe luzaezinean zuzen dezala, eta adieraziko zaio ezen, hala egiten ez badu, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, betiere alde zurretik ebazpena emanda. Ebazpen hori Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikuluan aurreikusitakoaren arabera emango da.</p> <p>18. artikulua. Ebazpena</p> <p>7. Era berean, egintzak ezeztatze eta akatsak zuzentzeko, 39/2015 Legeak 109 artikuluan xedatzen duena aplikatuko da.</p> <p>20. artikulua. Pertsona edo entitate onuradunaren betebeharrak</p> <p>e) ...</p> <p>Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorra, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Legearen zortzigarren xedapen</p>
---	---

<p>hala onartzen duenez, hiritarrek eskubidea dute Administrazioaren esku dauden dokumentuak ez aurkezteko, eta beraz, tokiko erakundeak berak espedienteari erantsiko zaion ziurtagiri bat igorriko du.</p> <p>k) Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan jasota geratuko da Zarauzko Udalak edo bere erakunde autonomoen diruz lagundutakoa dela.</p> <p>m) Erakunde onuradunak diruz lagundutako jardueran argitaratzen diren idatzi, iragarki, ohar eta gainerako komunikazioak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan idatzi eta ezagutarazi beharko ditu, eta publizitatearekin ere, ahozko zein idatzia izan, berdin jokatuko du. Halaber, ekitaldi zehatzetan megafoniaz igorritako mezuak euskaraz edo bi hizkuntza ofizialetan transmititu beharko dira. Betebehar hori bete izana diruz lagundutako jarduera egin dela justifikatzerakoan egiaztatu beharko da.</p> <p>o) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko du; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu. - ... - Antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izango dira. 	<p>gehigarria eta, oro har, 39/2015 Legearen 28. artikuluan jasotako aurreikuspena aplikatuta, ez da beharrezkoa izango interesdunak baimena ematea laguntzak eta dirulaguntzak kudeatzeko; eta administrazioak, bere eskumenen barruan, datuen zehaztasuna frogatzeko eta bere esku dauden edo beste edozein administrazioi egin dituen dokumentuak kontsultatzeko eta biltzeko behar diren egiaztapenak egin ahalko ditu.</p> <p>k) Diruz lagundutako jardueraren zabalkunde-ekintzetan jasota geratuko da Zarauzko Udalak diruz lagundutakoa dela.</p> <p>m) Diruz lagundutako jarduera guztietan bermatuko da euskararen erabilera. Jarduerak euskaraz edo ele bitan egingo dira. Mezu idatziak (kartelak, esku-orriak, gonbidapenak, deialdiak, publizitatea...) eta ahozko komunikazioak (aurkezleak, hizlariak, musika...) gutxienez euskaraz egingo dira, eta, ele bitan eginez gero, euskarari lehentasuna emanda. Diruz lagundutako jarduera euskaraz egiten bada, euskaraz idatzi eta ezagutaraziko da.</p> <p>Haur, nerabe eta gazteentzat bereziki antolatutako jarduera guztiak euskaraz egingo dira. Euskararen erabilera bermatuko da arlo guztietan, hedapenean eta jarduera bera gauzatzerakoan.</p> <p>Dirulaguntzaren onuradunak hizkuntzaren tratamendua aurreikusi egingo du hirugarrenekin zerbitzuak kontratatzerakoan edo honakoak egiterakoan: bilerak, hitzaldiak, jendaurreko ekitaldiak, idatzizko komunikazioa (informazio-orriak, kartelak, gutunak, oharrak...), megafonia, web-orria, WhatsApp-taldea...</p> <p>Dirulaguntza justifikatzeko txostena, lehentasunez, euskaraz idatziko da, interesdunek bi hizkuntza ofizialetako edozeinetan harremanak izateko duten eskubideari utzi gabe.</p> <p>Hizkuntza-baldintzak betetzetik salbuetsita egon daitezke dirulaguntza sozialak, baldin eta dirulaguntzaren helburua edo izaera kontuan hartuta hizkuntza-baldintza horiek betetzea ezinezkoa bada, edo ez betetzea erabat justifikatuta badago.</p> <p>o) Gizonen eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzeko udal araudiaren arabera:</p> <ul style="list-style-type: none"> - Dokumentazio, publizitate, irudi edo material guztietan sexismorik gabeko komunikazioa inklusiboa erabiliko du. Emakumeak diskriminatzen dituen edozein irudi edo estereotipo sexista saihestuko du; eta berdintasun-balioak, emakume eta gizonen presentzia orekatua, dibertsitatea, erantzunkidetasuna, rol-aniztasuna eta genero-identitate anitzak erakusten dituzten irudiak sustatuko ditu. - ... - Bermatuko du antolatutako jarduera, ekitaldi edo ikuskizunak eduki sexistarik gabekoak izango direla, eta ezingo dutela diskriminatu sexu, ideologia, jatorri
--	---

<p>4. DIRULAGUNTZAREN XEDEAREN JUSTIFIKAZIOA 22. artikulua. Justifikazioa</p> <p>4. d) Jardueraren gastuak eta inbertsioak justifikatzeko dokumentuen kopia eta zerrenda sailkatua (E-05), entitatearen diruzainak sinatuta, eta hartzekoduna eta dokumentu mota, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data identifikatuta. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.</p> <p>e) Programaren edo jardueraren hedapenean hizkuntza ofizialen erabileraren jarraipenaren E-06 ereduaren arabera fitxa osatua.</p> <p>...</p> <p>Udalak egiaztatzea dirulaguntzaren xedea bete den</p> <p>Dirulaguntza eman duen organoak urteko jarduera-plana egin beharko du urtero, onuradunek diruz lagundutako jarduerak egin dituztela frogatzeko.</p> <p>Plan horretan adierazi beharko da ea dirulaguntza guztiek daukaten egiaztapena egiteko betebeharra edo emandakoen lagin batek bakarrik, eta, azken kasu horretan, nola hautatu lagina. Egiaztatu beharreko alderdi nagusiak eta egiaztapena egiteko unea ere jaso beharko ditu.</p> <p>5. AURREKONTUAK KUDEATZEKO PROZEDURA 23. artikulua. Gastua onartzeko eta ordainketa egiteko prozedura</p> <p>3. Ordaintzeko betebeharra eta agindua Alkatetzaren dekretu bidez edo erakunde autonomo bakoitzeko lehendakariaren ebazpen bidez emango da, aurrekontua gauzatzeko arauetan ezarritakoaren arabera.</p> <p>6. DIRULAGUNTZEN ITZULERA 25. artikulua. Itzulera-prozedura</p> <p>2. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, goragoko agindu batek eskatuta, beste organo batek arrazoitutako eskaera eginda, edo arlo horren finantza-kontrola egiteko eskumena duen organo batek eskatuta, salaketa baten bidez edo partikularrak berak egindako komunikazio baten bidez.</p> <p>8. PUBLIZITATEA</p>	<p>etniko, nazionalitate edo sexu-orientazioko arrazoiengatik.</p> <p>4. DIRULAGUNTZAREN XEDEAREN JUSTIFIKAZIOA 22. artikulua. Justifikazioa</p> <p>4. d) Jardueraren gastuak eta inbertsioak justifikatzeko dokumentuen kopia eta zerrenda sailkatua (dagokion eredu), entitatearen diruzainak sinatuta, eta hartzekoduna eta dokumentu mota, zenbatekoa, jaulkipen-data eta, hala badagokio, ordainketa-data identifikatuta. Dirulaguntza gutxi gorabeherako aurrekontu baten arabera ematen bada, gertatutako desbideratzeak adieraziko dira.</p> <p>e) Hizkuntza ofizialen benetako erabileraren justifikazioa, dagokion inprimakiaren bidez.</p> <p>...</p> <p>Udalak egiaztatzea dirulaguntzaren xedea bete den</p> <p>Dirulaguntza eman duen organoak urteko jarduera-plana egin beharko du urtero, onuradunek diruz lagundutako jarduerak egin dituztela frogatzeko.</p> <p>Plan horretan adierazi beharko da ea dirulaguntza guztiek daukaten egiaztapena egiteko betebeharra edo emandakoen lagin batek bakarrik, eta, azken kasu horretan, nola hautatu lagina. Egiaztatu beharreko alderdi nagusiak eta egiaztapena egiteko unea ere jaso beharko ditu.</p> <p>Dirulaguntzen finantza-kontrola 38/2003 Legearen III. tituluan aurreikusitakoaren arabera egingo da.</p> <p>5. AURREKONTUAK KUDEATZEKO PROZEDURA 23. artikulua. Gastua onartzeko eta ordainketa egiteko prozedura</p> <p>3. Ordaintzeko betebeharra eta agindua Alkatetzaren dekretu bidez emango da, aurrekontua gauzatzeko arauetan ezarritakoaren arabera.</p> <p>4. Justifikazioa aurkezten ez bada edo Dirulaguntzei buruzko Legean itzulketarako aurreikusitako kausaren bat gertatzen bada, dirulaguntza osoa edo zati bat kobratzeko eskubidea galduko da.</p> <p>6. DIRULAGUNTZEN ITZULERA 25. artikulua. Itzulera-prozedura</p> <p>2. Dirulaguntzak itzultzeko prozedura ofizioz hasiko da, dirulaguntza eman zuen organoak eskatuta, goragoko agindu batek eskatuta, beste organo batek arrazoitutako eskaera eginda, edo arlo horren finantza-kontrola egiteko eskumena duen organo batek eskatuta, salaketa baten bidez edo partikularrak berak egindako komunikazio baten bidez. Kontu-hartzaileak egindako finantza-kontrolako txostenaren ondorioz ere hasiko da.</p> <p>8. PUBLIZITATEA</p>
---	---

<p>32. artikulua</p> <p>Emandako dirulaguntzen zerrenda Udalaren eta erakunde autonomoen web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, onuradunak eta zenbatekoak adierazita.</p> <p>Ez da argitaratu beharko, dirulaguntzek Udalaren edo haren erakunde autonomoen aurrekontuan esleipen izenduna dutenean.</p> <p>...</p> <p>Dirulaguntza jasotzen duen pertsonak edo entitateak derrigorrez adieraziko du Zarauzko Udalak edo dagokion erakunde autonomoak diruz lagundu duela jarduera.</p> <p>Zabalkunde-neurriak hauek izango dira: entitate emailearen irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, oroitzapen-plaketan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetan egindako aipamenetan.</p>	<p>32. artikulua</p> <p>Dirulaguntzen Datu Base Nazionalak dirulaguntzen publizitate-sistema nazional gisa jardungo du.</p> <p>Horretarako, administrazio emaileak erabakitako deialdi eta ebazpenei buruzko informazioa bidaliko dio BDNSri, hark emandako bitarteko elektronikoen bidez.</p> <p>Emandako dirulaguntzen zerrenda Udalaren web-orrian eta udaletxeko iragarki-taulan argitaratuko da, onuradunak eta zenbatekoak adierazita.</p> <p>Ez da argitaratu beharko, dirulaguntzek Udalaren aurrekontuan esleipen izenduna dutenean.</p> <p>...</p> <p>Dirulaguntza jasotzen duen pertsonak edo entitateak derrigorrez adieraziko du Zarauzko Udalak diruz lagundu duela jarduera.</p> <p>Zabalkunde-neurriak hauek izango dira: entitate emailearen irudi instituzionala edo finantzaketa publikoari buruzko legendak sartzea karteletan, oroitzapen-plaketan, material inprimatuetan, bitarteko elektronikoko edo ikus-entzunezkoetan eta komunikabideetan egindako aipamenetan.</p> <p>Onuradunek, gainera, jasotako dirulaguntzen eta laguntzen publizitatea egin beharko dute, zenbatekoa eta helburua adierazita, eta gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legean jarritako moduan eta baldintzetan, honako kasu hauetan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Entitate pribatuek urtebeteko epean 100.000 eurotik gorako laguntza edo dirulaguntza publikoak jasotzen dituztenean, edo urteko diru-sarrera guztien % 40 gutxienez laguntza edo dirulaguntza publikokoak direnean, betiere gutxienez 5.000 eurora iristen badira. • Interes sozial edo kulturalerako helburuak besterik ez dituzten irabazi-asmorik gabeko entitateak badira, eta 50.000 eurotik beherako aurrekontua badute, jasotako laguntza edo dirulaguntza publiko gehienek jatorri den Administrazio Publikoak haien esku jarritako bitarteko elektronikokoak erabili ahal izango dituzte lege honetatik eratorritako betebeharrak betetzeko.
<p>9. BALORAZIO IRIZPIDEAK: BERDINTASUNA</p>	<p>9. BALORAZIO IRIZPIDEAK: BERDINTASUNA ETA HIZKUNTZA</p> <p>34. artikulua</p> <p>Dirulaguntzak baloratzeko irizpideetan, ondorengo hizkuntza-irizpideak txertatuko dira, eta gutxienez lehenengoa:</p> <ul style="list-style-type: none"> – Jarduera euskaraz hutsez gauzatu eta zabaltzea. – Euskararen erabilera sustatzeko neurriak hartzea, bai jardueraren garapenean, bai entitatearen barne funtzionamenduan.

<p>10. INTERPRETAZIOA 34. artikulua Alkatetzak ahalmena izango du Ordenantza hau modu egokian interpretatzeko eta aplikatzeko behar diren agindu eta argibide guztiak emateko.</p> <p>11. ERREKURTSOAK 35. artikulua</p> <p>XEDAPEN GEHIGARRIA</p> <p>Jasangarritasunaren helburua ahalik eta gehien betetze aldera, araudi honetan aipatzen den dokumentazio guztia eta Udalari eta haren erakunde autonomoi dirulaguntzak eskatzen dizkietenek lantzen dutena DIN A-4 formatuan egingo da, paper birziklatuan, bi aldeetatik inprimatuta eta ahalik eta paper gehien aurrezten duen orrialde-konfigurazioarekin.</p>	<p>10. INTERPRETAZIOA 35. artikulua Alkatetzak ahalmena izango du Ordenantza hau interpretatzeko eta aplikatzeko behar diren agindu eta argibide guztiak emateko.</p> <p>11. ERREKURTSOAK 36. artikulua</p> <p>XEDAPEN GEHIGARRIA</p> <p>Jasangarritasunaren helburua ahalik eta gehien betetze aldera, araudi honetan aipatzen den dokumentazio guztia eta Udalari dirulaguntzak eskatzen dizkietenek lantzen dutena DIN A-4 formatuan egingo da, paper birziklatuan, bi aldeetatik inprimatuta eta ahalik eta paper gehien aurrezten duen orrialde-konfigurazioarekin.</p>
--	--

5.- AUTO-TAXI ZERBITZUAREN 2022. URTEKO TARIFAK

Espedientea: 2021UUUU0020

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211125&punto=5>

2002an, Eusko Jaurlaritzak lege honen garapen-erregelamendua onartu zuen: 2/2000 Legea, Bidaiariak Herri Barruan eta Herriz Kanpo kotxez garraiatzeko Zerbitzu Publikoa arautzen duena. Legean oinarrituta, ERREGIMEN BEREZIKO EREMUA eratu zen Urola Kostan (Aia, Getaria, Orio, Zarautz eta Zumaiako herriak biltzen dituen eremua). Eta hori guztia, Lurralde Antolaketa eta Sustapenerako Foru Diputatuak emandako aginduaren bidez (487/05 Foru Agindua, GAO 180 zk., 2005-09-22).

2021eko irailaren 17ko idatziaren bidez (sarrera-erregistroko 10.566 zk.), Urola Kostako Udal Elkarteak Udal honi jakinarazi dio Taxiaren Eskualdeko Batzordeak honako hau erabaki duela 2022. urterako: % 2,9ko igoera aplikatzea 2021eko taxi-tarifei. Bide batez, Gipuzkoako Taxien Elkarteak aurkeztutako dokumentazioa ere bidali du, Udalbatzak onar dezan.

Urola Kostako Taxiaren Eskualdeko Batzordeak aurkeztutako proposamena aztertu ondoren, eta kontuan hartuta taxi-zerbitzuaren 2022. urterako tarifari buruzko idatzia, Herritarren informazio-batzordeak hala proposatuta, Udalbatzarrak aho batez **ERABAKI DU:**

Lehen.- Zarauzko AUTO-TAXI ZERBITZUAREN HIRI-TARIFAK onartzea, 2022. urterako, ondoren zehazten denaren arabera:

TARIFAK	Abiasaria	Ibilitako km-ko	Itxoite-ordua
---------	-----------	-----------------	---------------

1*	5,6368 euro	1,2029 euro	22,9727 euro
2**	6,7099 euro	1,9185 euro	37,4983 euro

Gutxienerako tarifyan sartuta daude 1,5 km-ko ibilbidea edo 5 minutuko itxaronaldia.

- (*) Tarifa hau lanegunetan aplikatuko da, goizeko 07:00etatik gaueko 22:00etara.
- (**) Tarifa hau egunero aplikatuko da, gaueko 22:00etatik goizeko 07:00etara. Era berean, 2 tarifa hori aplikatuko da goizeko 07:00etatik gaueko 22:00etara egun hauetan: igande eta jaiegunetan (erkidegoko eta tokiko araudietan jarritakoak), larunbatetan eta abenduaren 24an eta 31n.

Bigarrena.- Akordio hau Urola Kostako Udal Elkarteari bidaltzea, arauzko izapideak bete ditzan.

6.- ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORRAREN ALDAKETA, 13.2 –OR IÑURRITZA– AREARI DAGOKIONA. BEHIN BETIKO ONESPENA

Espedientea: 2018H7000008

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211125&punto=6>

Akordio-zirriborroa irakurri eta gero, proposamena eztabaidatu da.

Proposamena bozkatu dute, eta emaitza hau izan da:

Aldeko botoak:	18	10 EAJ-PNV, 8 EH Bildu
Kontrako botoak:	3	2 PSE-EE, 1 Podemos-Equo Berdeak
Abstentzioak:	-	

Ondorioz, adierazitako botoekin proposamena onartu da.

2019ko azaroaren 28ko osoko bilkuran, Udalbatzarrak behin-behineko onespena eman zion Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren aldatetari (13.2 –OR Iñurritza– areari dagokiona).

2020ko irailaren 30ean, Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordeak aldateta-proposamenaren aldeko txostena egin zuen.

Espedientea ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozeduraren mende dago. 2021eko martxoaren 5ean, ingurumen-organoak aldeko ingurumen-adierazpen estrategikoa eman zuen.

Erredakzio-taldeak dokumentuaren testu bategin bat aurkeztu zuen, behin betiko onartzeko. Hirigintza eta Ingurumen Departamentuak dokumentuari buruzko txostena egin zuen.

Espedientea Lurraldeko informazio-batzordean eztabaidatu zen.

Espedientea aztertu eta eztabaidatu ondoren, eta, legezko gehiengo osoaren “quorum”-arekin, Udalbatzarrak honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- Behin betiko onespena ematea Zarauzko Hiri Antolamenduaren Plan Orokorraren aldaketari (Zarauzko 13.2 –OR Iñurritza – areari dagokiona).

Behin betiko onespena jaso duen antolamendu-dokumentua 2021eko uztailleko testu bategina da, Corta estudioko arkitektoek eta Jon Orue abokatuak idatzitakoa. Horrekin batera doan ingurumen-dokumentu estrategikoa Asmatu SLPk egindakoa da (2020ko urriko dokumentua). Bertan, zarataren ebaluazioari buruzko atal bat ere sartzen da (Laecor Ingeniería Acústica enpresak egindakoa; 2019ko urriko dokumentua).

Bigarrena.- Planean aurreikusitakoa gauzatzean, aintzat hartuko dira bai ingurumen-dokumentuan bai ingurumen-txosten estrategikoan adierazitako neurri babesleak eta zuzentzaileak.

Hirugarrena.- Onartutako dokumentua Foru Aldundiaren hirigintzako plangintzaren erregistro administratibora bidaltzea.

Horren ondoren, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira behin betiko akordioaren testu osoa eta hirigintzako ordenantzak. Halaber, behin betiko onespeneren akordioa lurralde historikoan gehien zabaltzen den egunkarian argitaratuko da.

7.- 10.2 -OR SALBERDIN- AREAKO R9-UNO PARTZELA VISESA ENPRESA PUBLIKOARI SALTZEA, ALOKAIRUKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK SUSTATZEKO

Espedientea: 2019H9890006

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211125&punto=7>

Akordio-proposamena irakurri eta gero, udal taldeek beren iritzia emateari ekin diote. Eta eztabaida amaituta, proposamena bozkatu dute, emaitza honekin:

Aldeko botoak:	20	10 EAJ-PNV, 8 EH Bildu, 2 PSE-EE
Kontrako botoak:	-	
Abstentzioak:	1	1 Podemos-Equo Berdeak

Horrenbestez, adierazitako gehiengoarekin, Udalbatzarrak erabaki hau hartu du:

Zarauzko Udala ZARAUZKO HIRI ANTOLAMENDUAREN PLAN OROKORREKO 10.2 – OR Salberdin– areako R9 partzelaren jabea da. Partzela horren xedea da babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzea.

VISESA enpresa publikoak partzela erosteko eskaintza formal bat egin zuen, 1.925.000 euroko prezioan (gehi BEZa), errentamendu iraunkorrerako babes ofizialeko etxebizitzak sustatzeko (86 inguru). Horrez gain, Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan % 95eko hobari orokorra aplikatzea ere eskatu zuen.

Hirigintza eta Ingurumeneko Departamentuak izapidetu zuen espedientea.

Udalak uste du sustapena interes berezikoa edo udal onurakoa dela, obrarekin handitu egingo delako herrian gaur egun hain urria den alokairuko etxebizitzaren eskaintza, eta horrek aukera emango dielako Zarauzko familia askori etxebizitza duin bat eskuratzeko.

Lurraldeko udal informazio-batzordeak irizpena eman ondoren, Udalbatzarrak gehiengoz honako hau

ERABAKI DU

Lehenengoa.- VISESA enpresa publikoari saltzea Udalaren jabetzako R9-UNO azpipartzela eraikigarria (10.2 area –OR Salberdin–), 1.925.000 euroko prezioan (gehi BEZa). Izenpetu beharreko kontratuaren oinarritzko klausulak sartu dira, akordio honen eranskin gisa.

Alkatetzak izango du salmentaren eskritura publikoa sinatzeko ahalmena, Udalaren izenean.

Bigarrena.- Adieraztea VISESA enpresak errentamendu iraunkorrerako babes ofizialeko etxebizitzak eraikitzeke sustatuko duen obra interes publiko berezikoa eta udal onurakoa dela. Horren ondorioz, % 95eko hobaria aplikatzea Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergaren kuotaren kalkuluan (EIOZ).

Hirugarrena.- Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduan aurreikusitakoaren arabera, Gipuzkoako Foru Aldundiari besterentzearen berri ematea.

ERANSKINA

Sinatu beharreko kontratuaren klausulak

- 1.- **Xedea.** Salberdin areako R9-UNO partzelaren eta horren eraikigarritasunaren % 100aren salerosketa.
- 2.- **Prezioa.** 1.925.000 €, gehi BEZa.
- 3.- **Ordaintzeko modua.** % 100 eskudirutan, salerosketaren eskritura publikoa sinatzean.

4.- Transmisioaren helburua. Alokairuko babes ofizialeko 86 etxebizitza inguru eta horiei atxikitako 86 garaje sustatzea. Errentamendu iraunkorrerako erabiliko dira. Garaje librean partzelak (34 inguru) VISESAk transmitituko dizkie hirugarrenei, prezio unitario honetan: 30.000 euro/unitateko, gehi BEZa.

5.- Kargak. Kargarik gabeko partzela, urbanizatua eta eraikitzeko egokia transmititzen da, hau da, libreki erabil daiteke eta gaitasun geologikoa du oin berriko eraikinak egiteko.

6.- Baldintza partikularrak. Zarauzko Udalak honako hau adierazi du:

Urbanizazioari dagokionez:

a.- Transmittitutako partzelak orube izaera eduki dezan, beharrezkoa da onartutako urbanizazio-proiektuan jasotako urbanizazio-obrak egitea; beraz, posible da eraikuntza-obrak eta urbanizazio-obrak aldi berean egitea.

b.- Transmittitutako partzelak ez du urbanizazio-kargarik (erregistroko inskripzioan hala jasota dago, hirigintza-kargen atalean), eta, beraz, ez du urbanizazio-kuotarik edo -derramarik ordaindu behar.

Partzelako lurraren kalitateari dagokionez.

a.- Transmittitutako partzela sartuta dago kutsatuta egon daitezkeen lurzoruen Euskal Autonomia Erkidegoko inbentarioan; beraz, beharrezkoa da Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena izapidetzea.

b.- Urbanizatzeko Jarduketa Programak eta birpartzelazio-proiektuak (eremuko Hitzarmen Batzordeak sustatutakoak eta Udalak onartutakoak) urbanizazio-kostuen artean sartzen dituzte eremuko eta partzelako kutsadura kentzeko eta bertako ingurumena berreskuratzeko kostu guztiak, beste hirigintza-karga bat gehiago gisa, eta, gainera, Lurzoruaren Kalitate Ziurtagiria lortu behar dute. Hori guztia, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 147.3 artikuluaekin bat etorriz.

Ondorioz, Zarauzko Udalak **honako betebeharrak haur ezartzen dio bere buruari:** VISESAk partzela transmitituan egingo den eraikinaren lehen okupazioko lizentzia eskatzen duen egunean ondoren adierazitako zirkunstantzietako bat gertatzen bada eta horrek kalte bat eragiten badiu VISESAri (besteak beste, obraren finantziario-kostua gaitzitzea edo salmenten ondoriozko diru-sarrerak atzeratzea), Zarauzko Udalak ordainduko dio VISESAri erreklamaturako kaltearen zenbatekoa. Kopuru hori Hitzarmen Batzarrak eraturako eta gordailututako bermeetatik aterako da. Ordainketa, hala badagokio, **gehienez ere 3 hilabeteko epean egingo da**, aurretik kontraesaneko espediente egin ondoren. Espediente hori Udalak ebatziko du, Hitzarmen Batzarrari entzun ondoren. Beraz, Udalak betebeharrak honen edukia berri emango dio Hitzarmen Batzarrari, jasota gera dadin.

Aurreko paragrafoan jasotako baldintza aplikatzea eragingo duten zirkunstantziak:

a.- Urbanizazioa amaitu gabe egotea edo lehen okupazioko lizentzia legeko epeetan emateko moduan ez egotea, VISESAri egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik.

b.- Partzelak Lurzoruaren Kalitatearen Ziurtagiririk ez izatea, VISESAri egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik.

c.- Partzelan dauden hondakinen edo lurzoruko kutsatuen kudeaketan gainkostua egotea (lur garbi hondatu gabek izango lituzketen kudeaketa-kostuekin alderatuta). Atal honetan sartzen da, baita, Hondeaketa Planaren kostua eta garraioaren gainkostua, baldin eta hondakin arriskutsuak badira eta baimendutako zabortegietan tratamendu espezializatuak behar badituzte. Hondakinen kanonaren gainkostua honela kalkulatu da: tonako 1,5 eurotan murriztuko da zabortegiko kudeaketa-kanonaren prezioa (kudeaketak kostu hori izango luke betelantarako lur garbiak izango balira). Ingurumen-ikuskapenaz arduratzen den entitate egiaztatuak justifikatuko du kudeaketaren gainkostuaren azken zenbatekoa, Hondeaketa Planari buruzko bere azken txostenean oinarrituta.

7.- Beste betebeharrak batzuk. Zarauzko Udalak hitz ematen du VISESAk egindako sustapenari hobaririk handiena aplikatuko diola Eraikuntza, Instalazio eta Obren gaineko Zergan; hau da, % 95eko hoberia, sustapena interes bereziko edo udal-onurakoa delako, zirkunstantzia sozialengatik eta deskribatutako sustapenaren izaeragatik.

8.- Etxebizitzak esleitzeko prozedura. Etxebizitzak esleitzea Etxebideri dagokio, Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-arloko sail eskudunaren araudiaren arabera. Erregimen orokorreko babes ofizialeko etxebizitzak eskuratzeko indarreko araudiak ezartzen dituen baldintzak bete behar dituzte; eta, bestetik, egiaztatu beharko dute Zarauzko erroldan gutxienez antzintasun hau dutela: urtebetekoa, etenik gabe; edo edo hiru urtekoa, etenekin, azken bost urtean.

9.- Eskubideen erreserba. VISESAk aukera izango du etxebizitzak Eusko Jaurlaritzako etxebizitza-arloko sail eskudunari, ALOKABIDE sozietate publikoari edo hirugarren bati transmititzeko, errentamendu-erregimenean kudea ditzaten; eta eskuratzailerak subrogatuko ditu Visesak bere gain hartutako eskubideak eta betebeharrak.

10.- Eskritura sinatzea. Abenduko lehen hamabostaldia. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren Etxebizitzari buruzko ekainaren 18ko 3/2015 Legearen 37.4 artikulua araberak, babes publikoko etxebizitzetara zuzentzeko hirigintza-kalifikazioa duten lursailen jabetza transmititzeko, beharrezkoa da aurretik Eusko Jaurlaritzaren etxebizitza-arloko sail eskudunaren oniritzia lortzea.

11.- Jarraipen Batzordea. Aldeek beren gain hartutako betebeharren jarraipena egiteko, Jarraipen Batzorde bat eratuko da. Bi alderdietako bina ordezkariak osatuko dute, eta hiru hilean behin bilduko dira lanak amaitu arte.

Arratsaldeko zazpiak eta berrogeita bostean, **Alkate** jaunak bilkura eten egin du, Covidaren inguruko segurtasun neurriak direla eta, aretoa aireztatzeko. Handik bost minutura, zazpiak eta berrogeita hamarrean, berriro ekin diote bilkurari.

8.- EH BILDU UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Interes Publiko gorenko proiektuen erregulazio berriari buruzkoa

Espedientea: 2021O0010009

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211125&punto=8>

Aztergai honetara iritsita, EH-BILDU udal taldeak aurkeztutako proposamena irakurri du **Arozena** jaunak. Hona hemen testua:

INTERES PUBLIKO GORENEKO PROIEKTUEN ERREGULAZIO BERRIA **ZIOA**

Gaur egun, Ingurumen Administrazioaren Lege Proiektua izapidetzen ari da Eusko Legebiltzarrean, eta zuzenketak aurkeztu ondoren, Legebiltzarreko prozeduraren fase aurreratuan dago, epe laburrean onartu dadin.

Eusko Jaurlaritzak aurkeztutako lege-proiektuari aurkeztutako zuzenketetarikoko baten xedea Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamenduari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea aldatu eta figura berri bat arautzea da, hau da, PIPS edo Interes Publiko Gorenko Proiektuen figura sortzea.

Aldaketa horren bidez, Eusko Jaurlaritzari ahalmena ematen zaio ustezko ingurumenhobekuntza izan dezakeen edozein azpiegitura Interes Publiko Gorenko Proiektu izendatzeko, baldin eta sustapen publikoa badago, hala nola, energia berriztagarriak sortzeko proiektuak, zaborteak, araztegiak, erauzketa-proiektuak, etab. Gainera, ez zaie aterik ixten beste proiektu mota batzuei, hala nola ekipamendu handiei edo bestelakoei, baldin eta ingurumenaren aldetik nolabaiteko justifikazioa badute (eremu degradatu batean planteatutako ia edozein proiektu, esaterako, antzinako hondakindegia batean golfzelai bat...).

IPGP izendapen horrek lurralde-antolamenduko eta hirigintza-plangintzako tresna guztiak azpiegitura berrira egokitu beharra ekarriko du, hau da, IPGPak, herritarren partehartzearekin eginiko udalen Hiri Antolamenduko Plan Orokorrei inposatu egingo zaizkie, balizko interes orokorreko proiektu horiek toki-eremuko administrazio publikoen irizpidearen aurkakoak izan arren; zentzu horretan IPGPak HAPOa baliogabetu egingo du. Are gehiago, Lurralde Antolamenduaren Legearen aldaketa honek toki-erakundeen prebentzio-kontrolerako ahala ere baliogabetzen du.

"IPGP" figura, beraz, lurralde- eta hirigintza-plangintzaren inguruan ezarritako adostasunaren aurkako eraso bat da. Toki-eremuko autonomia eta demokrazia nabarmen urratzea, udalari ez baitaio aukerarik ematen bere lurraldearen barruan desegokitzen jotzen dituen erabilerak mugatzeko.

Kezka handiz ikusten dugu Ingurumen Administrazioaren Legea laster baldintza horietan onartu ahal izatea. Hori dela eta, Zarauzko Euskal Herria Bildu Udal Taldeak honako mozio hau aurkeztu du Osoko Bilkuran eztabaidatu eta onartzeko:

MOZIOA

1. Zarauzko Udalaren Osoko Bilkurak adierazten du Lurralde Antolamenduari buruzko Legeak Interes Publiko Goreneko Proiektuen figura jasotzearen aurka dagoela, eta baita ere, gure udalen toki-autonomiarentzat kaltegarria den eta gure toki-demokrazia urratzen duen beste edozein tresnaren aurka dagoela.
2. Zarauzko Udaleko Osoko Bilkurak EUDEL Euskadiko Udalen Elkarteari eskatzen dio, udalen udal-interesa defendatzeko, jendaurrean adieraz dezala aurka dagoela eta dagozkion kudeaketa guztiak egin ditzala Lurralde Antolamenduari buruzko Legea aurreko puntuan deskribatutako moduan alda ez dadin.
3. Zarauzko Udalaren Osoko Bilkurak mozio honen edukia Eusko Legebiltzarrerara eta EUDEL Euskal Udalen Elkartera bidaltzea erabaki du.

Gaia eztabaidatu ondoren, proposamena bozketan jarri dute, eta emaitza hau izan du:

Aldeko botoak:	9	8 EH Bildu, 1 Podemos-Equo Berdeak
Kontrako botoak:	12	10 EAJ-PNV, 2 PSE-EE
Abstentzioak:	-	

Ondorioz, botoen gehiengoarekin, Udalbatzarrak ERABAKI DU EH-BILDU udal taldeak aurkeztu duen mozioa atzera botatzea.

9.- PODEMOS-EQUO BERDEAK UDAL TALDEAK AURKEZTUTAKO PROPOSAMENA:

– Ingurumen Administrazioaren Legeari buruzkoa

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211125&punto=9>

PODEMOS-EQUO BERDEAK udal taldeak atzera egin eta aurkeztutako mozioa erretiratu du gai-zerrendatik, EH-BILDUK udal taldearenarekin antza handia duelako.

Arratsaldeko zortziak eta berrogeita hamarrean, **Alkate** jaunak bilkura eten egin du, Covidaren inguruko segurtasun neurriak direla eta, aretoa aireztatzeko. Handik bost minutura, zortziak eta berrogeita hamabostean, berriro ekin diote bilkurari.

10.- ESKARI-GALDERAK.

<http://bideoakta.zarautz.eus/?pleno=20211125&punto=10>

Jabier Etxaburu jaunak eskaera eta galdera hauek egin ditu udalerrian ETS egiten ari den obrari buruz::

1.- Kontuan hartuta zenbateraino eta norainoko obra den, eta kontuan hartuz zaratei, bibrazioei, etxebizitzetxei eragindako kalteak, eta Mitxelena, Lapurdi, Geltoki, San Frantzisko, Lanpardo, Iturribide bizilagunen ongizateari buruzko aurrekariak. Udaleko Ingurumen/Hirigintza sailak ingurumen txostena egin dezala eta ETS, obraren sustatzaileari, problematikaren jakitun izanik, ingurumen-ebaluazioa egin dezala eskatzen diogu.

2.- Kontuan hartuz dokumentazioa eta informazioa ezkutatu zitzaigula, eta plenoan erabakia hartu zenean onartzen ari ginena estazioaren obra zela eta ez trenbideena, Udaleko Idazkariari eta Kontu-hartzaileari txosten bat eskatzen diegu, finantzaketa-akordio hori baliogabetzeko arrazoi nahikorik dagoen edo ez aztertzeko eta horren berri emateko.

3.- Bestetik, ez dugu lortu jakitea, proiektuaren memoriaren arabera, obraren Aurrekontua edo Administrazioari ezagutzeko aurrekontua bezla izendatua 10.985.703,14 eurokoa izanik, zergatik plenoan onartu zen hitzarmenean 13.053.303.76 eurokoa zen.

Aurrez aipatutako puntuak eta trenen eta merkantzien zirkulazioa handitu egingo dela kontuan hartuta, ETSri eskatzen diogu obra birplanteatu dezala eta soterramenduari bide eman diezaiola.

4.- 2030 plan estrategikoa lantzen hasi gara. Guretzat garrantzitsua da, eta horretan jarraituko dugu lanean. Oso garrantzitsua da herritarrek parte hartzea, hitz egitea, proposatzea, eztabaidatzea eta entzutea nolako izango den gure bizitza eta gure ingurunea etorkizunean. Horregatik, trenarekin gertatutakoa eta izandako kudeaketa

nola izan den ikusita, gertuen dagoen administrazioarekiko mesfidantza areagotu egiten da. Horregatik, udal gobernuari eskatzen diogu, gai honen inguruko parte-hartze prozesu bat antolatzeke herritarrekin.

Alkate jaunak obrari buruzko informazioa eman du, bideoaktaren estekan ikus daitezkeen terminoetan.

Eta aztertzeke besterik ezean, batzarburu jaunak osoko bilkurari amaiera eman dio, gaueko bederatzietan; eta nik, idazkariak, horren guztiaren fede ematen dut.